



**Emakume eta gizonen
berdintasunerako II. plana**

2022-2025



ORIOKOU DALA

kalala

Aurkibidea

Sarrera (3 or.)

1.1. Aurrekariak

1.2. Metodologia eta parte-hartzaileak

1.3. Testuinguru juridikoa

1. Berdintasun planaren egitura (9 or.)

2.1. Lan ildo bakoitzeko helburuak

2.2. Lan ildo bakoitzeko ekintzak

2.3. Lan ildo bakoitzeko helburu eta ekintza kopuruak, guztira

- Gobernu ona

- Emakumeen ahalduntzea

- Ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzea

- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

2.4. Berdintasun-politikak aurrera eramateko aurreikusten den aurrekontua

2. Kudeaketa-egiturak (24 or.)

3.1. Sailen arteko egitura politikoa

3.2. Sailen arteko egitura teknikoa edo Berdintasun Batzordea

3.3. Instituzioen arteko koordinaziorako egitura

3.4. Berdintasunerako Talde motorea

3.5. Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailen arteko koordinazio organoa

3.6. Emakumeen Mahaia

3.7. Hezkidetza Mahaia

3. Jarraipen-sistema (27 or.)

4.1. Jarraipenerako tresnak

4.2. Jarraipen-bilerak

4.3. Urteko plan operatiboa


4.4. Jarraipen-egutegia

Eranskina: Berdintasunerako II. diagnostikoa (31 or.)

*Kalaka kooperatiba elkarte txikiak
gidatutako prozesua,
Emakunde-Emakumearen euskal
erakundearen babesarekin.*




Sarrera



Plan honek Orioko Udalak 2022-2025 aldirako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jarduteko estrategia eta proposamena jasotzen ditu. Orioko Udalak ibilbide berriari konpromezu eta gogoz ekin dio, berdintasun-politikak diseinatu eta ezartzeko bideak irekiz.

Aurrez berdintasunean diagnostikoak egin dira, baina, ez dute ekintzara bideratzeko nahikoa konpromezu izan. Aurrerapen hauek sendotzeko beharra ahaztu gabe, dokumentu honek datozen 4 urteetan lortu nahi diren emaitza estrategikoetan zentratzen du esku hartzeko proposamena.



1.1. Aurrekariak:

Orioko Udalean aurreko legegintzaldietan egin dira berdintasunari begirako hainbat diagnostiko eta ekintza plan. Hauexek dira ekintza plan hau burutzeko aurretik emandako urratsak.

1 **2008 urtean Orioko Berdintasun diagnosia egin zen.** Emakundek diruz lagundua eta Euala aholkularitzak egin.

3 2012 urtean **2013-2016 urteetarako Orioko emakume eta gizonen berdintasunerako I. plana** egin zen. Murgibe aholkularitzak egin.

5 **2019 urtean Orioko emakumeon beharren diagnosia egin** zen. Pertzetik talde feministak egin.

7 **2021 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. diagnosia** egin zen, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

2 Diagnosian ahulgune eta hutsune nabarmenak agertu baziren ere, **hurrengo 4 urteetan ez zen berdintasun politikarik sustatu** hauei aurre egiteko.

4 Diagnostia egin eta 4 urtera ekintza plana diseinatu bazen ere, **ez zen bertako helbururik eta politikarik abiatu.**


6 Bigarren diagnosi honetan lanketa berezia egin zen herriko emakume talde anitzekin elkartuz eta gehiengoaren beharrak identifikatzen. Hau horrela, diagnosiaren ondoren, **Emakumeen Ahalduentze eskola sortzeko proiektua** aurkeztu zuten, eta udalak onartu zuenez, finkatutako helburuak betetzen ari da proiektu hau.

8 **2022 urtean Orioko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako II. plana** osatu da, Kalakaren aholkularitza teknikoarekin.

1.2. Metodologia eta parte-hartzaileak

2021eko diagnostikoa oinarri hartuta, 2022ko urtarriletik martxora bitartean, ekintza plana osatzeko prozesua garatu dugu.

Prozesuaren faseak:



Parte hartzaileak:

Talde sustatzailea honako hauek osatu dute:

- Alkatea
- Euskara, hezkuntza, hirigintza eta ingurumen zinegotzia
- PSE-EE alderdiko zinegotzia
- Hezkuntza eta euskara saileko teknikaria
- Gizarte saileko bi teknikari
- Udaltzainburua
- Langileen kudeaketa saileko arduraduna
- Ahalduntze Eskolako arduradunak
- Merkataritza, ostalaritza eta turismo teknikaria

- Kirol eta gazteria teknikaria
- Kultura teknikaria
- Hirigintza teknikaria

Prozesuan parte hartu duten herritar kopurua:

- Herritar kopurua: 11

Parte-hartzaile mota	Emakumeak	Gizonak
Talde sustatzailea	9	5
Herritarrak	10	1
GUZTIRA	19	6

1.3. Testuinguru juridikoa:

Segidan aurkezten ditugu legez zein funtzio eta obligazio dituzten tokiko administrazio erakundeek:

EAE

Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea

7. art	Azpiegiturak, programak eta prozedurak genero ikuspegiarekin egokitu eta sortzea.
	Ekintza positiboko neurriak aplikatzea.
	Programak egitea (Jaurlaritzaren eta GFAREN lan lerroen barruan).
	Estatistikak egokitu eta eguneratzea, sexu arrazoiengatik ezberdintasunak atzemateko
	Emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea
	Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintzen sentsibilizazio jarduerak egitea
	Araudia aztertzea berdintasun-printzipioaren arabera
	Herritarrei informazioa ematea berdintasunerako baliabideen inguruan
	Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak sortzea eta zerbitzuak ematea.
	Herritarrei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko baliabide eta zerbitzuak ezartzea.
	Erakunde publiko eta pribatuekin harremanak egitea berdintasuna lortzeko helburuetan laguntzen badute.
Sexu arrazoiengatik ematen diren bereizkeria egoerak antzematea eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.	
40. art	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta politikak sortzea eta garatzea.
43. art	Jazarpen sexista eta sexu jazarpenen prebentzioa.

Lege honetan oinarrituta, Emakunde legegintzaldi bakoitzean EAEko Berdintasun Plana osatzen du. Zeinak, tokiko eta foru administrazioentzako lan lerro amankomunak ezartzen dituen, elkarrekin noranzko berean lanean aritzea laguntzeko helburuarekin.

EAEko Emakume eta gizonezkoen VII. Berdintasun Plana (Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea)

Helburua	Gobernu ona
Esku-hartzeko ardatzak	Emakumeen ahalduntzea
	Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko
	Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

ESTATUAN

Tokiko oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea (2003-12-21ean eguneratua)

28. art

Udalek jarduera osagarriak ere egin ditzakete, bereziki, gai hauen ingurukoak badira: hezkuntza, kultura, emakumeen sustapena, etxebizitzak, osasuna eta ingurumenaren babesa

Genero indarkeriaren kontrako 1/2004 Lege Integrala

Genero indarkeriari aurre egiteko estrategia juridikoak eta gizarte mailako neurriak ezartzen ditu, prebentzioan landuak izateko eta indarkeria hau jasaten duten biktimen babes integralerako.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa

Ekintza positiboaren, Ordezkaritza orekatuaren eta Zeharkakotasunaren printzipioetan oinarritzen da, eta tratu eta aukera-berdintasuna sustatzeko arauak, berdintasun planak egiteko eta berdintasun politikak gauzatzeko obligazioa eta jazarpen sexista ala sexu-jazarpenen prebentziorako protokoloak ala neurriak ezartzeko obligazioa azpimarratzen dira.

EUROPAN

Emakumeen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (NBERen Biltzar Nagusia 1979; Espainiar Estatua 1984)

2. art

Printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea.

1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna (Europar Batasuna)

3.2. art

Batasuneko eta kide diren estatuetakoko politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Europako Gutuna Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako

Berdintasuna oinarritzko eskubidea dela azpimarratuz, berau errealitate izan dadin tokiko administrazioetan berdintasun politikak eta neurriak hartzeko jarraibideak eskaintzen dira.




Berdintasan
planaren
egitura

Atal honetan, Emakunderen VII. Berdintasun planaren helburu eta esku-hartze ardatzen baitan antolatu ditugu Orioko Udalak garatuko dituen ekintza planeko zereginak.

Zehaztutako neurri-sortak, II. Berdintasunerako diagnostikoan agertu diren emaitzen arabera

hautatu dira, hau da, diagnostikoan atzemandako ahulgune nagusien arabera. Ahulgune hauei aurre egiteko finkatu dira, beraz, neurri eta ekintzak.

Segidan, helburu eta esku-hartze ardatzen aurkezpena egiten dugu:



2.1. Lan ildo bakoitzeko helburuak:

HELBURUA:

GOBERNU ONA

G1	Berdintasun-politikak garatzeko berariazko aurrekontuak esleitu eta handitu
G2	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana exekutatu eta jarraipena egin
G3	Berdintasunerako organoak sortu eta koordinatu
G4	Prestakuntza eskaini langile eta politikariei
G5	Komunikazioan berdintasuna txertatu
G6	Prozeduretan genero-ikuspegia txertatu
G7	Sektorekako azterketak egin genero ikuspegitik
G8	Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartu
G9	Udalak berdintasunarekin hartutako konpromisoa herrian ikusarazi

ESKU-HARTZE ARDATZAK:

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

A1	Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten garrantzia azpimarratu
A2	Etxe morea sortzeko parte hartze prozesua egin
A3	Ahalduntze eskolaren eskaintza handitu eta zabaldu
A4	Baliabideen hobekuntza; desberdintasun handienak dituztenena, bereziki.
A5	Emakumeen osasuna eta autozaintza, adin guztietan

EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

E1	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna balio sozialtzat aitortu dadin laguntzea
E2	Ordaindu gabeko zaintza-lanak ikusaraztea eta horien balioa aitortzea
E3	Berdintasunaren inguruan herritarrak eta herriko eragileak sentsibilizatzea
E4	Ikastetxe eta aisialdiko elkarteekin hezkidetzaren plan bateratua sortu eta jarraipena ematea
E5	Emakumeen autonomia sozioekonomikoa bultzatu

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK GABEKO BIZITZAK

I1	Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa landu
I2	Prestakuntza indarkeria matxistaren inguruan
I3	Udaltzainen eraikineko emakumeen txokoa egokitu
I4	Herriko puntu beltzen diagnostia egin

2.2. Lan ildo bakoitzeko ekintzak:

GOBERNU ONA								
G1	Berdintasun-politikak garatzeko berariazko aurrekontuak esleitu eta handitu							
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
G1.1.	Berdintasun-politikak garatzeko berariazko aurrekontua esleitu	Sailen arteko organo politikoa		- Aurrekontu kopurua				
G1.2.	Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitu	Sailen arteko organo politikoa		- Urtero aurrekontua zenbatean handitzen den (%)				
G1.3.	Ahalduntze eskolaren funtzionamendurako aurrekontua esleitu	Sailen arteko organo politikoa		- Aurrekontu kopurua - Urtero aurrekontua zenbatean handitzen den (%)				
G1.4.	Etxe morea sortzeko aurrekontua esleitu	Sailen arteko organo politikoa		- Aurrekontu kopurua				
G2	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana exekutatuta eta jarraipena egin							
G2.1.	Berdintasuna udalean sustatzeko Talde motorea urtean 6tan elkartzea jarraipena egin eta plana exekutatuzeko.	Talde motorea		- Talde motoreak egindako bilera-kopurua				
G2.2.	Berdintasun batzordea edo Sailen arteko organo teknikoa urtean bitan elkartzea jarraipena egiteko.	Berdintasun batzordea		- Berdintasun Batzordeak egindako bilera-kopurua				
G2.3.	Sailen arteko organo politikoak urtean bilera bat egitea gutxienez, urteko berdintasun-ekintzak eta aurrekontuak onartzeko eta egindakoaren jarraipenaren berri izateko.	Sailen arteko organo politikoa		- Organo politikoak egindako bilera-kopurua - Onartutako ekintza kopurua				
G2.4.	Urteko jarraipeneko memoria-txostenak landu.	Talde motorea		- Urteko jarraipeneko memoria-txostena				
G2.5.	Instituzioen arteko koordinaziorako guneetan parte hartu (Berdinbidean).	Talde motorea		- Parte hartzearen hasiera data - Bilera kopurua				
G3	Berdintasunerako organoak sortu eta koordinatu							
G3.1.	Berdintasun-politikak garatzeko beharrak aztertu eta horiei aurre egiteko baliabideak sortu (Berdintasun-teknikari postua).	Talde motorea + Sailen arteko organo politikoa		- Azterketaren ondorioen txostena - Baliabide berrien onarpenaren data				
G3.2.	Berdintasun batzordea edo Sailen arteko organo teknikoa sortu eta koordinatu (zeharkakotasuna bermatzeko).	Talde motorea		- Sortze data eta parte hartzaileak, sexuaren arabera banatuta				
G3.3.	Sail guztien ardura duten organo politikoa sortu, berdintasun politikak sustatu eta koordinatzeko.	Sailen arteko organo politikoa		- Sortze data eta parte hartzaileak, sexuaren arabera banatuta				

	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
G3.4.	Instituzioen arteko koordinaziorako egitura sortu eta garatu. Berdinbidean programan sartu (GFA).	Talde motorea		- Egituraren sorrera data eta arduraduna				
G3.5.	Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailen (hezkuntza, osasuna, polizia, gizarte arloa) arteko koordinazio organoa sortu eta koordinatu.	Gizarte saila		- Sortze data eta erakunde eta sail bakoitzeko parte hartzaileak, sexuaren arabera banatuta. - Egindako bilera kopurua.				
G3.6.	Emakumeen Mahaia sortu eta koordinatu	Talde motorea		- Emakumeen Mahaiaren sorrera data, parte hartzaileak eta bilera kopurua.				
G3.7.	Hezkidetza Mahaia herriko ikastetxeekin sortu eta koordinatu	Talde motorea + Euskara eta Hezkuntza saila		- Hezkidetza Mahaiaren sorrera data, parte hartzaileak eragile eta sexuaren arabera banatuta eta bilera kopurua.				
G4	Prestakuntza eskaini langile eta politikariei							
G4.1.	Udal langile guztiei berdintasunean oinarritzko formakuntza eskaini.	Talde motorea + Kanpo aholkularitza	2.500 €	- Parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta - Eskainitako saio kopurua				
G4.2.	Udal langileek berdintasun gaietan sakontzeko formakuntza plana sortu eta garatu. Urtero berdintasun gai bat landu langile guztiekin eta egokitu sail bakoitzaren beharretara (jatorri aniztasuna, erantzukidetasuna, indarkeria matxista, komunikazio ez-sexista, mainstreaming-a, aurrekontuak genero ikuspegiarekin, etab.)	Talde motorea + Kanpo aholkularitza	2.500 €	- Formakuntza planaren txostena egin da? Bai/Ez - Urtero eskainitako gaia eta saio kopurua - Urteroko parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta				
G4.3.	Udal politikariak berdintasunean sentsibilizatu eta formatu.	Talde motorea + Kanpo aholkularitza	1.200 €	- Parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta - Eskainitako saio kopurua				
G5	Komunikazioan berdintasuna txertatu							
G5.1.	Udaleko webgunea errebisatu eta moldatu informazioa irisgarriagoa eginez eta genero ikuspegia txertatuz.	Komunikazioa + sailak		- Errebisatu eta moldatutako atal kopurua				
G5.2.	Hizkuntza, iruditegi eta erreferenteetan erreparatu udal mailan eta herritarrenganako komunikazio guztietan. Irizpide-sistema sortu eta komunikatu sail guztiei.	Komunikazioa		- Irizpide-sistemaren txostena				

G6 Prozeduretan genero-ikuspegia txertatu								
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
G6.1.	Postuen balorazioa genero irizpideen arabera egin -kategoriak, ordainsariak, etab.-.	Idazkaritza		- Egin da postu guztien balorazioa? Bai/Ez - Aldaketa egindako postu kopurua				
G6.2.	Egonkortasuna bultzatu lanpostuetan, langileen lan-kontratuen behin-behinekotasun tasa jaisteko.	Idazkaritza		- Behin-behineko kontratuetatik kontratu mugagabeetara pasatako kontratu kopurua				
G6.3.	Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatu.	Idazkaritza eta sailak		- Genero ikuspegia txertatu den aurrekontu kopurua				
G6.4.	Datuen bilketa era segregatuan egin, sistematizazioan genero adierazleak gehituz (eskaera-orriak, izen-emate orriak, datu-base guztiak, etab.)	Idazkaritza		- Gehitu dira genero-adierazleak? Bai/Ez - Genero-adierazleak gehitu diren euskarri kopurua				
G6.5.	Hautaketa-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzen dela ziurtatzeko klausulak gehitu.	Idazkaritza		- Txertatu dira klausulak? Bai/Ez - Hautaketa-prozesuetan txertatu diren klausula kopurua				
G6.6.	Kontziliazio neurrien inguruan udal-langile guztiak informatu (kontziliazio neurrien araudia eguneratu eta eskuliburua sortu, diseinatu eta zabaldu langileen artean).	Idazkaritza		- Langileak informatua izan diren data eta kanala - Kontziliazio neurrien eskuliburuaren sortze data - Langileei eskuliburua bidalitako data				
G6.7.	Sexu jazarpena eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloa landu udal barruan, eta honen garapenerako beharrezko egiturak sortu. Udal-langile guztiei honen berri eman.	Berdintasun batzordea + Talde motorea		- Protokoloa bukatu da? Bai/ez - Sortu den egituraren izena, data eta parte hartzaileak, sexuaren arabera banatuta.				
G6.8.	Indarkeria matxistarekin lotutako datuak bildu, aztertu eta horiek in lotutako erabakiak hartu.	Gizarte saila		- Datuen bilketa biltzen duen dokumentua/sistema. - Urteko jarraipena egin denaren txostena.				
G7 Sektorekako azterketak egin genero ikuspegitik								
G7.1.	Herriko kirol arloko eskaintza eta eskariaren azterketa egin genero ikuspegitik.	Kirola	10.000 €	- Azterketa egin da? Bai/Ez - Azterketa bukatu deneko data				
G7.2.	Herriko merkataritza, ostalaritza eta turismo arloaren azterketa egin genero ikuspegitik.	Turismo, merkataritza eta ostalaritza	10.000 €	- Azterketa egin da? Bai/Ez - Azterketa bukatu deneko data				
G7.3.	Herriko kultur arloko eskaintza eta eskariaren azterketa egin genero ikuspegitik.	Kultura	10.000 €	- Azterketa egin da? Bai/Ez - Azterketa bukatu deneko data				
G7.4.	Azterketa sektorialen ondorioak kontuan izanik, hobekuntza neurriak proposatu, bideragarritasuna neurtu eta abiatu.	Sail bakoitza + Kanpo aholkularitza		- Ekintza plana egin da? Bai/Ez - Bideragarritasuna neurtutako ekintza kopurua - Abiatutako ekintza kopurua				

G8 Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartu								
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
G8.1.	Herriko elkartei (kirol elkarteak, kultur elkarteak, gizarte elkarteak...) ematen zaizkien diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartu eta sail bakoitzak aplikatu.	Idazkaritza + sailak		- Berdintasunerako klausulak sartu diren diru-laguntza kopurua, sailen arabera banatuta				
G8.2.	Hitzarmenak eta diru laguntzak jasotzen dituzten herriko elkarteek berdintasunerako klausulak betetzen dituztela bermatzeko, berdintasunean oinarritzko formakuntza eta aholkularitza eskaini.	Talde motorea + Kanpo aholkularitza		- Eskainitako formakuntza-saio kopurua - Eskainitako aholkularitza-saio kopurua - Parte hartu duten elkarten zerrenda eta parte hartzaileak sexuaren arabera banatuta.				
G8.3.	Udalak egiten dituen kontratazioetan berdintasunerako klausulak sartu eta sail bakoitzak aplikatu.	Idazkaritza + sailak		- Berdintasunerako klausulak sartu diren kontratazio kopurua, sailen arabera banatuta				
G9 Udalak berdintasunarekin hartutako konpromisoa herrian ikusarazi								
G9.1.	Martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28 eta azaroaren 25ean berdintasunaren aldeko adierazpen publikoak egin, edota mugimendu feministak eta emakume elkarteek antolatzen dituzten ekintzak babestu.	Komunikazioa + Berdintasun Batzordea		- Egindako adierazpen publiko kopurua - Adierazpen publikoa egindako data				
G9.2.	Udalak egiten dituen agerraldietan emakume eta gizonen ordezkariak orekatu bereziki.	Udal ordezkariak + Komunikazioa		- Egindako agerraldi kopurua eta bakoitzean izandako emakume eta gizonen ordezkariaren kopurua				

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

A1 Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten garrantzia azpimarratu								
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
A1.1.	Kale izendegia errebisatu eta emakumeak gehitu.	Hirigintza		<ul style="list-style-type: none"> - Egindako aldaketen kostua adierazten duten ordainagiriak. - Aldatutako errotuluen argazkiak. 				
A1.2.	Emakumeak protagonista diren ikuskizunak programatu.	Kultura		<ul style="list-style-type: none"> - Ikuskizun kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Egindako ikuskizunen egitaraua. - Ikuskizunen argazkiak. 				
A1.3.	Jai batzordean jai-ereduen hausnarketa egin.	Kultura		<ul style="list-style-type: none"> - Hausnarketarako erabili diren saio kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Hausnarketaren ondorioak biltzen dituen dokumentua bera. 				
A1.4.	Emakumeen parte-hartzea indartu dezaketen ekintzak lehenetsi.	Kirola		<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza kopurua. - Parte hartu duten emakume kopurua. 				
A1.5.	Neska eta emakumeak kirolera gerturatzeko kanpaina(k).	Kirola		<ul style="list-style-type: none"> - Kanpainak sortzeko egindako bilera kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Kanpainak argitaratu diren euskarriak berak (kartelak, eskuorriak, pegatinak, etab.). 				
A1.6.	Euskara ikasten ari diren emakume etorkinen ahalegina ikusgai egitea: elkarrizketak tokiko hedabideetan, maila ona lortu dutenak baliatzea hitzaldi edo mahai-inguruetan...	Euskara teknikaria + Euskaltegia		<ul style="list-style-type: none"> - Argitaratutako elkarrizketa kopurua. - Emakume etorkinek parte-hartutako hitzaldi edo mahai-inguru kopurua. 				
A1.7.	Noka ikastaroak eta praktikaldiak antolatzen jarraitzea	Euskara teknikaria + Euskaltegia		<ul style="list-style-type: none"> - Ikastaro kopurua; parte hartzaileen %ak sexuaren arabera banatuta. 				

A2 Etxe morea sortzeko parte hartze prozesua egin								
EKINTZA		ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
A2.1.	Etxe morea egituratzeko parte hartze prozesua landu.	Berdintasun batzordea		- Parte-hartze prozesuko bilera kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Bileretako argazkiak. - Bileretako aktak.				
A2.2.	Prozesuaren ondorioekin proiektu teknikoa garatu.	Berdintasun batzordea + Hirigintza		- Proiektu teknikoa biltzen duen txostena.				
A3 Ahalduntze eskolaren eskaintza handitu eta zabaldu								
A3.1.	Aholkularitza juridiko eta psikologiko doakoa ematen jarraitu.	Ahalduntze eskola + Gizarte saila		- Aholkularitza jasotzen duten emakumeen kopurua.				
A3.2.	Komunikazio plangintza osatu eta garatu.	Ahalduntze eskola		- Komunikazio plangintzaren dokumentua. - Komunikazio plangintzan adostutako komunikazio ekintzen euskarriak.				
A4 Udal-baliabideen hobekuntza; desberdintasun handienak dituztenena, bereziki.								
A4.1.	Kanpo espazioen azterketa egin eta garatu.	Hirigintza	15.000 €	- Azterketa biltzen duen txostena. - Azterketak adostutako ekintzak egin direla bermatzeko argazkiak/euskarriak, etab.				
A4.2.	Udal eraikinetako espazioak binarismotik haratago berregituratu: komun eta aldagela indibidualak izan daitezela, sexuaren araberako banaketarik egin gabe, besteak beste.	Hirigintza		- Aldaketa egin dela adierazten duten argazkiak.				
A4.3.	Kirol zerbitzu eta instalazioetako arautegiak (kiroldegia, ikastetxeak, elkarteak) genero ikuspegiz aztertu eta beharrezko moldaketak egin berdintasuna berma dadin.	Kirola		- Arautegiak biltzen dituen dokumentua.				
A4.4.	Gizarte zerbitzuen esku-hartze eredian emakumeen ahalduntzea sustatzeko praktika onen inguruko formakuntza egitea.	Gizarte saila		- Formakuntza saio kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.				
A4.5.	Pobrezia eta prekariedade egoeran bizi diren emakumeentzako programa bereziak antolatzea.	Gizarte saila		- Programetan parte hartu duten emakumeen kopurua. - Programak azaltzeko erabili diren komunikazioak (kartelak, webguneko atala, diptikoak, etab.).				

A5	Emakumeen osasuna eta autozaintza, adin guztietan							
EKINTZA		ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
A5.1.	Osasun ikuspegitik jarduera fisikoa sustatzeko plana sortu: SOAF eta Aktibatu kasu.	Kirola		<ul style="list-style-type: none"> - Plana biltzen duen txostena. - Garatutako ekintzen kopurua; parte hartzaile kopurua eta argazkiak. 				
A5.2.	Ahalduntze eskolaren eskaintza zabaldu emakumeen osasun eta autozaintzaren inguruan.	Ahalduntze eskola		<ul style="list-style-type: none"> - Gehitutako formakuntza edota zerbitzu kopurua. 				
A5.3.	Gizarte sailak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eman herritarrei euskarri fisiko baten bidez.	Gizarte saila	3.000 €	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri fisikoa bera. 				

EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZAK ERALDATZEA

E1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna balio sozialtzat aitor dadin laguntzea								
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
E1.1.	Errelatoan emakumeen lorpen eta aportazioen berri herri mailan zabaltzeko hitzaldiak, mahai-inguruak, bisita gidatuak, jokoak, etab. sortzea	Turismo, merkataritza eta ostalaritza	30.000 €	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako euskarriak. - Hitzaldi, bisita gidatu, etab. kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Ekintzen argazkiak. 				
E1.2.	Udaletik antolatzen diren kirol, kultura, ikuskizun eta ikastaroetan emakumeen parte-hartzea handitzeko udal zaintza zerbitzua sortu.	Berdintasun batzordea		<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzua sortzeko egindako bilera kopurua; parte hartzaileen %ak sexuaren arabera banatuta. - Bileretako aktak. - Bileretako argazkiak. - Adostutako puntuak biltzen dituen dokumentua. 				
E1.3.	Udaleko ekintzetarako sortutako udal zaintza zerbitzua martxan jarri.	Ekintzak antolatzen dituen saila		<ul style="list-style-type: none"> - Eskainitako ekintzetako zaintza zerbitzuen inguruan informatu dela adierazten duen kartela/ eskuorria. 				
E2 Ordaindu gabeko zaintza-lanak ikusaraztea eta horien balioa aitortzea								
E2.1.	Zaintza-lanen inguruko azterketa egitea herri mailan: zaintza ardurez nor arduratzen da, aisialdia, denborak, etab.	Gizarte saila + Kanpo aholkularitza	15.000 €	<ul style="list-style-type: none"> - Azterketa biltzen duen txostena. - Azterketa egin ahal izateko egindako bilera kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta; bileretako aktak. 				
E2.2.	Gizonezkoak zaintza-lanetan inplikatzeko kontzientziazio kanpaina udal mailan eta herri mailan.	Gizarte saila		<ul style="list-style-type: none"> - Kanpainarako erabilitako euskarriak. 				
E3 Berdintasunaren inguruan herritarrak eta herriko eragileak sentsibilizatzea								
E3.1.	Sentsibilizazio kanpainak, egun seinalatuez haratago, urte osoan zehar egitea.	Berdintasun batzordea	4.000 € urtero	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpaina egiteko erabilitako euskarriak (eskuorriak, kartelak, bannerrak, pegatinak, etab.). 				
E3.2.	Binarismoa ekiditeko euskarazko hitzak eta zerrendak sortu eta hiztegi formatuko euskarri batean zabaltzeko herri mailan.	Euskara eta hezkuntza		<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako euskarria. 				
E3.3.	LGBTIQ+ pertsonen bizi dituzten errealitate ezberdinak bistaratzeko eta hausnartzera bultzatzeko gida sortu eta zabaltzeko.	Gizarte saila		<ul style="list-style-type: none"> - Gida bera. - Gidaren berri emateko erabili diren kanal eta euskarrien irudiak. 				

E4 Ikastetxe eta aisialdiko elkarteekin hezkidetza plan bateratua sortu eta jarraipena ematea								
EKINTZA		ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
E4.1.	Ikastetxe eta aisialdiko elkarte bakoitzaren azterketa bat egin.	Euskara eta hezkuntza + Kanpo aholkularitza		<ul style="list-style-type: none"> - Azterketa biltzen duen txostena. - Azterketa egin ahal izateko egindako bilera kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta; bileretako aktak. 				
E4.2.	Azterketen osteko hezkidetza plan bateratua osatu.	Euskara eta hezkuntza		<ul style="list-style-type: none"> - Plana egin ahal izateko egindako bilera kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta; bileretako aktak. - Hezkidetza plana bera biltzen duen dokumentua. 				
E4.3.	Orioko adin eta arlo ezberdinetako emakume erreferenteei elkarrizketak egin eta ikerketaren berri eman.	Berdintasun batzordea		<ul style="list-style-type: none"> - Egindako elkarrizketak biltzen dituen euskarria. - Zabaltzeko erabili diren komunikazioak. 				
E4.4.	Elkarrizketatutako emakume erreferenteen zerrenda osatu eta sentsibilizaziorako euskarri formatura ekarri, zabaldu ahal izateko.	Berdintasun batzordea + Kanpo aholkularitza		<ul style="list-style-type: none"> - Euskarria bera. 				
E4.5.	Guraso-eskola abiatzea eta bertan berdintasun-arloko gaiak (ere) lantzea	Euskara eta hezkuntza teknikaria eta zinegotzia + Ikastetxeak		<ul style="list-style-type: none"> - Guraso-eskolako parte hartzaile kopurua %ak sexuaren arabera banatuta. - Bilera kopurua. - Bileretako aktak. 				
A5 Emakumeen autonomia sozioekonomikoa bultzatu								
A5.1.	Emakume ekintzaileei aholkularitza eskaintzen jarraitu.	Ahalduntze eskola		<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza eskaini zaien emakume kopurua. 				
A5.2.	Euskaltegiaren eskaintzaren azterketa egitea, ea zertan hobetu daitekeen ikusteko, emakume etorkinen eskolaratzea errazteko	Euskara teknikaria + Euskaltegia		<ul style="list-style-type: none"> - Azterketa biltzen duen dokumentua. 				

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

II Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa landu								
II	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
II.1.	Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa herritarrentzat sortu.	Berdintasun batzordea + Kanpo aholkularitza		- Protokoloa sortzeko erabili diren bilera kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Bileren aktak. - Protokoloa bera biltzen duen txostena.				
II.2.	Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa zabaldu herritarrei.	Berdintasun batzordea		- Zabaltzeko erabili den euskarria (emaila, kartelak, bileraren argazkia, etab.)				
II.3.	Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa egokitu ostalariei eta zabaldu (eskuorria, pegatina eta bestelako euskarrien bidez)	Turismo, merkataritza eta ostalaritza		- Protokoloa zabaltzeko erabili diren euskarriak.				
II.4.	Jai batzordean protokoloa jorratzeko irizpideak jasotzea.	Kultura		- Jai batzordearen bileraren argazkia. Irizpide zerrenda biltzen duen dokumentua.				
II.5.	Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa jaietara egokitu eta zabaldu.	Kultura		- Protokoloa zabaltzeko erabili diren euskarriak.				
II.6.	Jaietan indarkeriaren inguruko informazio txokoa(k) sortzea.	Kultura		- Informazio txokoa(e)n argazkia.				
II.7.	Jaietan emakumeentzat babesgunea(k) sortzea.	Kultura		- Babesguneen argazkia.				
II.8.	Jaietan indarkeria gaitzesten denaren mezua zabaltzeko txapak, pegatinak, kartelak, etab. zabaldu.	Kultura		- Mezua zabaltzeko erabili diren euskarriak.				
II.9.	Jaietako egitaraua zabaltzen den euskarri berean, indarkeria kasu baten aurrean herritarrek eman beharreko pauso nagusiak adieraztea era informatiboan.	Kultura		- Eskuorria.				
II.10.	Kirol eremuetan jazarpen matxisten aurkako komunikazio euskarriak sortu.	Kirola		- Komunikazio euskarriak.				
II.11.	Emakunderen diru-laguntza eskatu protokoloaren prozesua lantzeko.	Gizarte saila		-Emakunde diru-laguntza aurkeztu izanaren txostena.				


I2 Prestakuntza indarkeria matxistaren inguruan								
	EKINTZA	ARDURADUNA	AURREKONTUA	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024	2025
I2.1	Lehen arretan daudenei formakuntza espezifikoa eskaini indarkeria matxistaren inguruan: Txurmuski, Udaltzaingoa, Gizarte saileko teknikariak, Ostalariak, Jai batzordeko kideak, Kirol teknikariak, Kirol elkarteak, Kiroldegiko langileak.	Berdintasun batzordea		- Formakuntza saio kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.				
I2.2	Udaltzainei esku-hartze zuzeneko psikologa feminista batekin koordinazioa/formakuntza erraztu.	Udaltzaingoa		- Formakuntza saio kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.				
I2.3	Berdintasuna eta indarkeria matxista gaitzat duten jarduerak antolatu herritarrentzat.	Ahalduntze eskola + Kultura		- Jarduerak antolatzeko egin diren bileren kopurua, bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta eta bileren aktak. - Jarduera kopurua, bertaratutako herritarren kopurua eta %ak sexuaren arabera banatuta.				
I2.4	Ostalariei musika matxistaren inguruko sentsibilizazioa saioa(k).	Turismo, merkataritza eta ostalaritza		- Formakuntza saio kopurua eta bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.				
I2.5	Sortutako indarkeria matxistaren aurkako protokoloa barneratzeko formakuntza esku-hartzean parte hartzen duten eragileei.	Gizarte saila		- Formakuntza saio kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.				
I3 Udaltzainen eraikineko emakumeen txokoa egokitu								
I3.1	Txokoa apaindu: sofa, telebista, mezu egokiak, etab.	Udaltzaingoa		- Egindako erosketen ordainagiriak eta txokoaren argazkia.				
I3.2	Haurren presentzia aurreikusi eta eurentzat jostailu eta ipuin parekideekin txokoa goxatu.	Udaltzaingoa		- Egindako erosketen ordainagiriak. - Haurren espazioaren argazkia.				
I4 Herriko puntu beltzen diagnostia egin								
I4.1	Herriko puntu beltzen diagnosirako prozesu parte hartzailea bultzatu.	Hirigintza + Kanpo aholkularitza	15.000 €	- Prozesuko bilera eta saio kopurua; bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta. - Saiotako aktak eta argazkiak. - Prozesuaren memoria.				
I4.2	Diagnostia osatu eta herri mailan aurkeztu.	Hirigintza		- Diagnostia biltzen duen txostena. - Aurkezpenera bertaratutakoen %ak sexuaren arabera banatuta.				
I4.3	Diagnosiaren jarraipena egin.	Hirigintza		- Jarraipena burutzeko egindako bilera kopurua eta bertaratutakoen %koa sexuaren arabera banatuta.				

2.3. Lan ildo bakoitzeko helburu eta ekintza kopuruak, guztira:

Lan-ildoak		Helburuak	Ekintzak
G	Gobernu ona	9	38
A	Emakumeen ahalduntzea	5	19
E	Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea	5	15
I	Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak	4	21
Guztira:		23	93

2.4. Berdintasun-politikak aurrera eramateko aurreikusten den aurrekontua:

Kontzeptua	2022	2023	2024	2025
Langileentzako formakuntza	3.700 €	3.700 €	2.500 €	2.500 €
Sentsibilizazio-kanpainak herritarrei zuzenduta	4.000 €	7.000 €	4.000 €	4.000 €
Berdintasuna sustatzeko ekintzak	15.000 €	15.000 €	15.000 €	15.000 €
Diagnostiko sektorialak	15.000 €	15.000 €	15.000 €	15.000 €
Berdintasuna sustatzen duten elkarreentzako diru-laguntzak		2.000 €	2.000 €	2.000 €
Ahalduntze eskola	37.000 €	40.000 €	40.000 €	40.000 €
GUZTIRA	74.700 €	82.700 €	78.500 €	78.500 €



3.1. Sailen arteko egitura politikoa:

Parte hartzaileak:

Udaleko sail guztien ardura politikoa duten, eta erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna duten pertsonak osatuko dute. Alderdi politiko guztietako ordezkariak hartuko dute parte.

Funtzioak:

Alde batetik, udal mailan aurreikusten diren berdintasun politiken gaineko erabakiak koordinatuko dituzte, eta bestetik, berdintasunarekiko inplikazio politikoa adierazi eta sustatuko dute, informazio egokia erraztuz.

Urteko bilera kopurua: 1

Data: azaroan

3.2. Sailen arteko egitura teknikoa edo Berdintasun Batzordea:

Parte hartzaileak:

Udaleko sail ezberdinetako teknikariek eta ordezkari politikoek osatzen dute talde hau. II. Berdintasun plana sortzeko osatu den talde motorea izango da abiapuntua.

Funtzioak:

Alde batetik, sail bakoitzerako zehaztu diren helburu eta neurrien garapena gauzatuko dute eta euren arteko koordinazioa bermatuko dute (koordinaziorako kanalak eta bitartekoak zehaztuko dituzte). Bestetik, urteko eta hurrengo urteetarako helburu eta neurrien gainean hobekuntzak eta aldaketak proposatuko dituzte, eta urtez urte ekintza guztien balorazioa egiten joango dira, kronograma orokorra eguneratuz elkarrekin.

Urteko bilera kopurua: 2

Data: ekaina eta azaroa

3.3. Instituzioen arteko koordinaziorako egitura:

Parte hartzaileak:

Udalaz gaindi udal berdintasun politiken berri emango duen bozeramaileak, berdintasunaren aldeko erakunde publikoekin lankidetzat sustatuko du.

Funtzioak:

Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintabidean programan sartuko da Orioko Udala, eta urteroko zeregin eta harremanak koordinatuko ditu. Bestetik, Gipuzkoako Jabetze eskolen sarean parte hartuko du, elkarlana eta elkarbaberatsa sustatuz.

Urteko bilera kopurua: egituraren parte hartzeak baldintzatzen dituenak.

3.4. Berdintasunerako Talde motorea:

Parte hartzaileak:

Udalan Berdintasun saila eta teknikaria egon bitartean, II. Berdintasun Plana garatzeko talde motorea izango da. Honako hauek osatuko dute:

- Gizarte langileak
- Idazkaritza
- Ahaldundutze eskola

Funtzioak:

Alde batetik, Talde motorearen bilerak egingo dituzte, urteko plangintza garatuz eta koordinatu behar dituzten beste organoen jarraipena eginez (Berdintasun Batzordea, Emakumeen Mahaia, Hezkidetzat Mahaia, Instituzioen arteko egitura); eta Berdintasun planaren jarraipeneko txostenak osatuko dituzte urtero.

Bestetik, Berdintasun arloko diru laguntzak eskatu eta kudeatuko dituzte.

Urteko bilera kopurua: 4

Data: hiruhiletik behin

3.5. Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailen arteko koordinazio organoa:

Parte hartzaileak:

Indarkeria matxistaren aurka lanean dabiltzan erakunde eta udal sailek osatuko dute: hezkuntza arloko eskoletako ordezkariak, osasun arloko zerbitzuen ordezkariak, Udaltzain eta Ertzantzaren ordezkariak, Udaleko Gizarte saileko ordezkariak eta Ahalduntze eskolako ordezkariak.

Funtzioak:

Alde batetik, indarkeria matxista kasuen aurrean elkarrekin nola koordinatuko direnaren jarraibide-protokoloa osatuko dute. Eta bestetik, jarraibide protokolo hori erakunde sinatzaile guztien barnean komunikatuko dute (dagozkien formakuntzak eskainiz eskuhartze zuzena egiten duten langile eta arduradunei).

Urteko bilera kopurua: Koordinazio organoa sortzen denean elkartzeko maiztasuna erabakiko da eta urteko bilera bakoitzean landuko denaren gaia ere definituko da.

3.6. Emakumeen Mahaia:

Parte hartzaileak:

Herriko emakume taldeetako eta talde feministetako ordezkariak, herriko emakume eragileak, udaleko Gizarte arloko arduradunak eta Ahalduntze eskolako arduradunek osatuko dute.

Funtzioak:

Alde batetik, udal mailan garatzen diren berdintasun politiken gaineko balorazioak egingo dituzte eta horiek hobetzeko proposamenak landu. Bestetik, herri mailan ikusten dituzten ahulguneak azaleratuko dituzte eta urteko sentsibilizazio eta ekintza-plana diseinatu eta garatuko dute elkarlanean.

Urteko bilera kopurua: Emakumeen Mahaia sortzen denean elkartzeko maiztasuna erabakiko da eta urteko bilera bakoitzean landuko denaren gaia ere definituko da.

3.7. Hezkidetzeta Mahaia:

Parte hartzaileak:

Herriko eskoletako ordezkariak, gazteleku eta ludotekako ordezkariak, Euskara eta Hezkuntza sailak, Kirola eta Gazteria sailak, eta Gizarte sailak osatuko dute.

Funtzioak:

Alde batetik, herri mailako hezkidetzeta plana osatuko dute (urteko sentsibilizazio eta ekintzen plangintza amankomuna diseinatuz). Eta bestetik, plangintzaren jarraipena egingo dute, dagozkion balorazio-txostena osatuz urte amaieran.

Bilera kopurua: Hezkidetzeta Mahaia sortzen denean elkartzeko maiztasuna erabakiko da eta urteko bilera bakoitzean landuko denaren gaia ere definituko da.



*Jarrainen
sistema*

Berdintasun plan honen arrakasta bermatze-ko, ezinbestekoa da urtero balorazio bat egitea ordurarteko helburu eta ekintzen betetze-maila neurtzeko, eta baita helburu eta ekintza horien bitartez lortutako eragina neurtzeko ere.

4.1. Jarraipenerako tresnak:

Jarraipena egiteko ekintza bakoitzak **adierazle multzo bat** dauka bere fitxan: batzuk kuantitatiboak dira eta beste batzuk kualitatiboak. Adierazle horiek erantzunez ekintza bakoitzaren jarraipena osatuko du arduradunak.

Ekintza bakoitzaren jarraipena egiteko hurrengo orrian aurkezten dugun **balorazio-fitxa** beteko da.

Bertan, **ekintzaren kokatze-datuen** ondoren (zein Berdintasun ardatzen barruan dagoen; Zein udal saili dagokion balorazioa; Zein helburu orokorren barruan dagoen; Ekintzaren izen zehatza; Ardura-duna/k; data ala iraupena).

Behin datu horiek jarrita, **baloraziorako irizpide kuantitatiboekin** jarraitu behar da. Horretarako, ekintzaren betetze-maila adierazi behar da (osoki eginda, zati bat eginda -faseak baldin baditu; ala iraupen luzeko ekintza bada-, amaitu gabe eta ezer ez dela egin parametroen bitartez), ekintzaren izaera (aurtengoa ala urterokoa den), aurrekontua (aurreikusitakoa eta erreala) eta eskaintako denbora (aurreikusitakoa eta erreala).

Balorazio kualitatiborako, berriz, azken atalak daude: ekintzaren garapenean egindakoaren azalpena jarri behar da; egin ez diren zati ala zereginen azalpena; bidean agertutako zailtasunak eta zailtasun horiei emandako irtenbideak zein izan diren; ekintza-fitxan ezarri ziren adierazleak ekarri behar dira balorazio-fitxara, eta ondoan, hauen emaitzak jarri behar dira; eta azkenik, norberak ibilbide honetan izandako esperientzien arabera hurrengorako ala beste ekintzetarako proposatzen dituen hobekuntzak ala ideia berriak.

4.2. Jarraipen-bilerak:

Urteko ekintza guztien fitxak bi bileretan landuko dira **Berdintasun Batzordean** (Sailen arteko egitura teknikoa): lehen bilera urtearen erdialdera egingo da eta beste bilera urte amaieran. Sail bakoitzaren balorazioaren ostean, ardatz bakoitzaren egoeraren eta kronograma orokorraren balorazioa egingo da bilera bakoitzean (kronograman ekintza bakoitzaren egoera betetze-maila berdez, laranjez ala gorritz adieraziko da).

Talde bilera hauen bitartez, ekintzak egitean agertzen diren zailtasunak azaleratuko dira eta ematen diren konponbideak elkarrekin partekatu, gainera, posible denetan lankidetzaz sustatuko da.

Ondoren, bertan agertutako balorazio eta proposamenak **Sailen arteko egitura politikora** eramango dira. Eta bertan, planaren jarraipena egiteaz gain, hurrengo urteko helburu estrategikoen aurrekontuen onarpena egingo da.

Urte bakoitzaren amaieran zehaztuta utziko dira hurrengo urteko bileren datak (bai Sailen arteko egitura politikorako, eta baita Berdintasun Batzordearako ere).

4.3. Urteko plan operatiboak edo programazioak:

Plana indarrean dagoen urte bakoitzean, urteko plan operatiboa edo urteko programazioa egingo da. Bertan, urte horretan landuko diren neurriak, ekintzak eta arduradunak zehaztuko dira. Plan operatibo hauek **Berdintasun Batzordearen lehen bileran** osatuko dira (urte bakoitzeko urtarrilean, hain zuzen ere).

Berdintasun ardatza					Saila				
	Helburua								
	Ekintza								
	Arduraduna				Data ala iraupena	Aurreikuspena:			
						Erreala:			
	Ekintzaren betetze-maila		Eginda	Zati bat	Amaitu gabe	Ezer ez	Ekintzaren izaera	Aurtengoa	Urterokoa
	Egindakoaren azalpena				Aurrekontua	Aurreikuspena:			
						Erreala:			
	Egin gabekoaren azalpena				Eskainitako denbora	Aurreikuspena:			
						Erreala:			
Agertutako zailtasunak:				Emandako irtenbideak:					
Zailtasunak eta irtenbideak									
Aurreikusitako adierazleak:				Adierazleen araberako emaitzak:					
Adierazleak eta emaitzak									
Hobetzeko proposamenak									

4.4. Jarraipen-egutegia:

Organoa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Talde motorea												
Berdintasun batzordea												
Sailen arteko egitura politikoa												
Instituzioen arteko koordinazio egitura												
Indarkeria matxistari aurre koordinazio organoa												
Emakumeen Mahaia												
Hezkidetza Mahaia												